

Apirila
Abril
2017



BIM

Antsoain Ansoáin

Inauteriak Carnavales



UDAL KIROL ZERBITZUA

FERNANDO ROMAY ANTZOAINEN BISITARI

Joan den otsailaren 15ean, Fernando Romay Antsoainera etorri zen, Gazte Berriak Udal Klubeko saskibaloia atalarekin saio bat egiteko. Saskibaloia jokalaria ohia da, espainiarra, eta 1984an zilarrezko domina irabazitakoa Los Angelesko Olimpiadetan.

Udal Kirol Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie Nafarroako Saskibaloia Federazioari, topaketa ahalbidetzeagatik, eta saskibaloia ataleko jende guztiari, topaketan parte hartzeagatik: hau da, jarduera dinamizatu zuten entrenatzaileei; buru-belarri parte hartu zuten jokalariei, bai eta gurasoei ere, harmailetatik saioa animatu eta ederki gozatzegatik.

SERVICIO MUNICIPAL DE DEPORTES

FERNANDO ROMAY VISITA ANSOÁIN

El pasado día 15 de febrero tuvo el encuentro de Fernando Romay, ex jugador de baloncesto español medalla de plata olímpica en Baloncesto Los Ángeles 1984, con la sección de baloncesto del club municipal C.D. Gazte Berriak.

Desde el Servicio Municipal de Deportes agradecemos a la Federación Navarra de Baloncesto el haber posibilitado este encuentro, y a toda la comunidad de la sección de baloncesto por su participación en el encuentro: entrenadoras y entrenadores que dinamizaron la actividad, a jugadoras y jugadores que participaron activamente, y a madres y padres que desde las gradas animaron y supieron disfrutar del evento.



Argitaratzailea: Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4500 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4500 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2017ko ekaina – Próximo BIM: junio 2017)

IKASTETXE PUBLIKOAK ETA HAUR ESKOLAK BERETU DITUZTE ANTSOAINGO UDALAK TAPEN LEHENENGO FASEAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK

Inbertsiorako 3 proiektu aurkeztu ditu Antsoaingo Udalak Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planerako proposamenen lehenengo fasean. Kasu honetan, "Toki Programazioa" izeneko bigarren atalari dagozkion 3 proiekturi buruz ari gara. Aurkezteko azkeneko eguna martxoaren 1a zen, eta lehenago aurkeztu dira.

Hauek dira aurkeztutako proiektuak:

- Ezkaba Ikastetxe Publikoaren sarrerako arrapalaren erreforma, irisgarritasunari buruzko araudiaren arabera egokitzeko. 31.331,44 euroko aurrekontua du obrak.
- Haur Eskolako leihoak eta beirak aldatzea, eraginkortasun termiko handiagoa lortzeko, eta kristalei buruzko segurtasun araudia betetzeko. Obra honen aurrekontua 38.598,84 eurokoa da.
- Itxita dauden Ezkaba Ikastetxe Publikoaren patioak aldagelak berritzea, uraren eta dutxen zirkuitua legionelosiari buruzko araudiari egokitzeko. 75.098,56 euroko aurrekontua duen obra da hau.

Helburu horietarako eskatutako memoria teknikoa eta dokumentuak erantsi zaizkie hiru proiektuetako bakoitzari.



EL COLEGIO PÚBLICO Y LA ESCUELA INFANTIL ACAPARAN LOS PROYECTOS PRESENTADOS POR EL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN A LA PRIMERA FASE DEL PIL

El Ayuntamiento de Ansoáin ha presentado 3 proyectos de inversión en la primera fase de presentación de propuestas para el Plan de Inversiones Locales (PIL) del Gobierno de Navarra. En este caso hablamos de 3 proyectos que se enmarcan en el segundo apartado de "Programación Local" y que han sido presentados antes del 1 de marzo,

fecha límite para hacerlo.

Los proyectos presentados son:

- Reforma de las rampas de acceso al Colegio Público Ezkaba para adecuarlas a la normativa actual en materia de accesibilidad. Obra presupuestada en 31.331,44 euros.
- Cambio de ventanas y vidrios de la Escuela Infantil para mejora de la eficiencia térmica y adecuación a la normativa de seguridad sobre cristales. Obra presupuestada en 38.598,84 euros.
- Reforma de los vestuarios del patio del Colegio Público Ezkaba, actualmente cerrados, para la adecuación del circuito de agua y duchas a la normativa sobre legionelosis. Obra presupuestada en 75.098,56 euros.

Cada uno de estos tres proyectos adjunta su memoria técnica y la documentación requerida al efecto.

ANTSOAINGO GAZTELEKUA, HARROBI

Otsailak gauza interesgarri asko ekarri zituen: otsailaren 3an, adibidez, "Zu Bai Artista!" hirugarren urtez antolatutako lehiaketa, maila handikoa. Otsailaren 14aren harira, "ipuinik ez kontatzea" tailerra izan genuen Equilatera elkartearen eskutik, amodio erromantikoaren mitoa hausteko asmoz.

Martxoan, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, urtero bezala Martxoak 8rako, argazki lehiaketa antolatu genuen.

Apirilean, berriz, hiruilekoa hainbat ikastarorekin hasiko dugu (Hip-Hop, GAP + tonofit, Zumba, eta Dj izaten ikasteko ikastaroa); hiruileko osoan zehar izanen duzue izena emateko aukera, leku libreetan.

Aste Santuko oporretan tailer gehiago antolatuko ditugu. Gogora ezazue doakoak direla. Adi egon!

Esan beharra daukagu martxoaren 1etik aurrera, ostiral, larunbat eta igandeez gain, astelehen eta asteazkenetan ere irekiko dugula Harrobiko Elkarte Aretoa, 19:00etatik 21:00etara.



Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoáin

CASA DE LA JUVENTUD, HARROBI

En febrero tuvimos varias actividades muy interesantes: la tercera edición del "Tú Sí Que Molas" el día 3, con un nivel muy alto. Y el taller "Que no te cuenten cuentos" a cargo de la Asociación Equilatera, con relación a la fecha del 14 de febrero, en el que quisimos romper con los mitos del amor romántico.

En marzo, con motivo del 8 de Marzo, Día Internacional de la Mujeres, volvimos a organizar el concurso de fotografía.

En abril comenzamos el nuevo trimestre con varios cursos (Hip-hop, GAP+tonofit, Zumba y curso para aprender a ser Dj); y podéis apuntaros en los que haya plazas vacantes a lo largo de todo el trimestre.

Para las vacaciones de Semana Santa también organizaremos algún taller. Recordad que son gratuitos. ¡estad atentos y atentas!

Sin olvidarnos que desde el 1 de marzo tenemos buenas noticias, el área de encuentro de Harrobi abrimos de 19:00 a 21:00 también lunes y miércoles, a parte de los viernes, sábados y domingos como hasta ahora.

MARÍA CONCEPCIÓN LOPETEGUI ETA JAVIER LACARRA UDALAREN LAN EGITURAN SARTU DIRA

María concepción Lopetegui Antsoaingo udal idazkari berria da, Raquel Pérez de Iriarte erretiratu berri baita, gure udalean hainbat urtez lanean aritu ondoren. Era berean, Javier Lacarrak bere gain hartu du Giza Baliabideen eta Lan Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa, berak irabazi baitu ardura postu berri hori betetzeko egin den aukeraketa-prozesu publikoa. Postua sortu da udalaren lan egitura sendotu eta hobetzeko. Raqueli erretiroaz gozatzea opa diogu, eta zortetik onena María concepciónri eta Javierri beren eginkizun profesionaletan.



MARÍA CONCEPCIÓN LOPETEGUI Y JAVIER LACARRA, NUEVAS INCORPORACIONES A LA ESTRUCTURA LABORAL DEL AYUNTAMIENTO

María concepción Lopetegui ha asumido el puesto de secretaria municipal del Ayuntamiento de Ansoáin tras la reciente jubilación de Raquel Pérez de Iriarte tras varios años de servicios prestados en nuestro consistorio. De la misma manera, Javier Lacarra asume la gestión de Recursos Humanos y Prevención de riesgos Laborales tras resultar ganador del proceso público de selección abierto para la ocupación de este nuevo puesto de responsabilidad creado para reforzar y mejorar la estructura laboral de esta institución pública. Deseamos a Raquel que disfrute de su jubilación y la mejor de las suertes para María concepción y Javier en sus respectivas labores profesionales.

LANKIDETZA HITZARMEN BAT SINATU DA ANTSOAINGO UDALAREN ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ARTEAN

Soziologia titulua duten bi pertsonen prestakuntza praktikorako hitzarmena da, bi lan egin ditzaten. Horietako bat foro bat sortzea da, hots, "Antsoaingo jaiei buruzko eztabaida foroa", eta bestea, berriz, prozesu bat abiaraztea: "Antsoainen, gazteria-politika bat zehazteari buruzko eztabaida-prozesua".

Akordioaren bidez, Udalak ikasleen edota unibertsitateko tituludunen lan prestakuntza lagundu nahi du, lan merkatuan sartzeko erraztasuna izan dezaten. Horretarako, NUPek lankidetzarako tresnak ditu eskura; "Hezkuntza Lankidetzarako Programak", adibidez. Programa horien bidez, unibertsitateko ikasleek eta tituludunek erabateko prestakuntza jaso dezakete praktika espezializatuak eginez.

Zehazki, berezko bi hitzarmen sinatu dira soziologia titulua duten bi pertsona horiekin, eta martxoan hasi dira lanean. Hitzarmenaren bidez, Antsoaingo Udalak eta NUPek beren lankidetza esparrua sendotu dute. Lankidetza, zehazki, 2016an hasi zen, udaleko telekomunikazio sarea barnean eta publikoki hobetzeko azterlan baten bidez. Azterlana Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoko ikasketa bukaerako ikasleek egin zuten.



FIRMADO UN CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN Y LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Se trata de un convenio para la formación práctica de dos personas tituladas en sociología que realizarán sendos trabajos para la creación de un "Foro de debate sobre las fiestas de Ansoáin" y para la apertura de un "Proceso de debate sobre la definición de una Política de Juventud en Ansoáin".

Con la firma del acuerdo, el Ayuntamiento pretende apoyar la formación laboral de estudiantes y/o personas tituladas universitarias ante su incorporación futura al mercado de trabajo, a través de instrumentos de colaboración con

la UPNA como los denominados "Programas de Cooperación Educativa", que tienen por objeto crear un espacio de oportunidad en el que las y los universitarios adquieran una formación plena a través del acceso a la realización de prácticas especializadas.

Dentro del convenio marco, se han realizado sendos convenios específicos con estas dos personas tituladas en sociología, cuyo trabajo ha comenzado en marzo.

A través de esta firma, el Ayuntamiento de Ansoáin y la UPNA refuerzan su marco de colaboración, emprendido a finales de 2016 con la elaboración de un estudio sobre la mejora de la red municipal de telecomunicaciones, tanto a nivel interno como público, por parte de estudiantes de fin de carrera de la Escuela Técnica Superior de Ingenieros Industriales y de Telecomunicaciones.

ZEBRABIDEA MOLDATZEKO LANAK EGIN DIRA, LEKUA HOBEBE IKUSTEKO

Zebrabidea Harrobi kalean dago, errotondara iritsi baino lehentxeago, Zelaia parkearen ondoan. Moldaketa lanak egin zaizkio, Antsoain erdialderantz doazen auto gidariak jendea zebrabidean hobeki ikus dezaten. Horrela, kale bazterreko edukiontzia kendu eta metro batzuk harantzago eraman dituzte; halaber, motoendako aparkalekua handitu da, hori guztia gidariak oinezkoak hobeki ikus ditzaten. Zebrabide hori asko erabiltzen dute Iñaki Ochoa de Olza institutuko ikasleek, eta auzokideek hainbat iradokizun egin dituzte inguru hori moldatzeko.



ACONDICIONAMIENTO DE PASO DE CEBRA PARA LA MEJORA DE LA VISIBILIDAD

El paso de cebra situado en la calle Canteras justo antes de acceder a la rotonda junto a parque Zelaia, ha sido reacondicionado intentando mejorar la visibilización de las personas que lo cruzan por parte de los coches que circulan en sentido Ansoáin centro. Desaparecen los contenedores que ocupaban el arcén, que han sido desplazados varios metros, y se amplía la zona destinada al aparcamiento de motos, intentando así ganar visibilidad en favor de las y los peatones. Éste es un paso muy utilizado por el alumnado antsoaindarra que acude al Instituto Iñaki Ochoa de Olza y ha sido objeto de varias sugerencias vecinales para su reforma.

GIZARTE GAIAK

Antsoaingo alkate Ander Orozek eta Gizarte Eskubideetarako presidenteorde Miguel Laparrak Hitzarmen bat sinatu dute berrikitan (martxoaren 13an), Antsoain Nafarroako Gobernuako entitate laguntzailea izan dadin, “Alokairu burtsa” izeneko ekimena garatze aldera.

Hitzarmenaren helburu nagusia da Antsoaingo jabe partikularren etxebizitza hutsak non dauden jakitea (hau da, alokatu gabeko eta jenderik gabeko etxebizitzak). Etxebizitza horiek Nasuvinsak kudeatzen duen Alokairu Burtsaren eskura jartzen ahalko dira. Horrek abantailak ekarriko dizkie bai jabeek, bai gizarteari, oro har; adibidez, etxebizitza horien jabeek bermatua izanen dute puntual-puntual kobratuko dutela errenta, alokatze-kontratua sinatzen duten unetik, eta halaber, etxebizitza egoera onean itzuliko zaie. Nasuvinsak, halaber, arrisku anitzeko aseguru bat kontratatuko du etxebizitza horretarako, jabeari inolako kosturik eragin gabe.

“Alokairu Burtsa” programa, beraz, bat dator hiri-eredu jasangarriago eta solidarioagoarekin, herriko etxebizitzaren baliabideak baliatzen baititu beharrean dauden pertsona guztientzat. Gainera, maizterrek diru-laguntzak jaso ditzakete etxebizitza horiek alokatzeko, bakoitzaren diru ahalmenaren arabera.

Antsoainen, beste herri batzuetan bezala, eskariak eskaintzaren gainetik daude alokairuko etxebizitzetarako dagokienez, eta halaber, badago etxebizitza babestuen beharra.

Hitzarmena Udala etxebizitzaren arloan egiten ari den ildoaren barruan dago, beste neurri bat baita jende orok etxebizitza duinerako duen eskubidea eraginkortasunez bermatzeko.



ASUNTOS SOCIALES

El alcalde de Ansoáin, Ander Oroz y el Vicepresidente de Derechos Sociales, Miguel Laparra, firmaron el pasado 13 de marzo un Convenio que declara a Ansoáin Entidad colaboradora del Gobierno de Navarra para el desarrollo del

Programa “Bolsa de alquiler”

El principal objetivo de este convenio es contribuir a captar viviendas vacías (viviendas que estén sin habitar ni alquilar) de las y los propietarios particulares de Ansoáin. Estas viviendas podrán ponerse a disposición de la Bolsa de alquiler que gestiona Nasuvinsa, con una serie de ventajas tanto para las personas propietarias como para la sociedad en general: las y los propietarios de estas viviendas tendrán garantizado el cobro puntual de la renta desde la firma del contrato de arrendamiento y la devolución de la vivienda en buen estado. También se contratará por Nasuvinsa un seguro multiriesgo para dicha vivienda sin coste para los y las propietarias.

El programa “Bolsa de alquiler” responde a un modelo de ciudad más sostenible y solidaria, ya que aprovecha los recursos de vivienda del pueblo para todas las personas que los necesitan. Además, existe la posibilidad para las personas inquilinas de recibir subvenciones para el alquiler de esas viviendas en función de su capacidad económica.

En Ansoáin, como en otros pueblos, la demanda de vivienda de alquiler supera la oferta, y la necesidad de vivienda protegida es un hecho.

La firma de este convenio pretende ser una más de las medidas que en materia de vivienda viene realizando este ayuntamiento para garantizar de forma efectiva el derecho de todas las personas a una vivienda digna.

BESTE URRATS BAT GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BORROKAN

Udaltzaingoa genero-indarkeriaren kontrako protokoloari atxiki zaio. Hona hemen protokoloaren izena: “Segurtasun Indarren nahiz Kidegoen, eta Udaltzaingoen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako protokoloa, etxeko eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko”. Beraz, Jarraipen Sistema Integrala erabiliko da genero-indarkeriari loturiko kasuetan (VioGén Sistema). Horrela, gure herriko erreferentziazko Polizia Kidegoa modernizatu eta garai berrietara egokitu da, eta balio handi-handiko baliabidea lortu du gaitz horren aurka borrokatzeko.



NUEVO PASO EN LA LUCHA CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

Policía Municipal se adhiere al “protocolo de colaboración y coordinación entre Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y los Cuerpos de Policía Local para la protección de las víctimas de violencia doméstica y de género”, y que conlleva la utilización del Sistema de Seguimiento Integral en los casos de Violencia de Género (Sistema VioGén). De esta forma, el Cuerpo Policial de referencia en nuestra localidad, se moderniza y se adapta a los nuevos tiempos, obteniendo un valiosísimo recurso en la lucha contra esta lacra.

ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZAK KONTZERTUA EMANGO DU APIRILAREN 6AN, SAN JUAN DE DIOS OSPITALEAN

“Guk ikasten dugun eta haiek gozatzen duten jarduera ederra” (Asier)

“Gure abestiak entzuterakoan jartzen zuten zorion-aurpegia ikustea gustatu zitzaidan” (Iraia)



ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

EL CORO INFANTIL DE LA ESCUELA DE MÚSICA DE ANSOÁIN OFRECE UN CONCIERTO EL 6 DE ABRIL EN EL HOSPITAL SAN JUAN DE DIOS

“Una actividad muy bonita porque aprendemos de esto y ellos disfrutan con nosotros” (Asier)

“Me gustó la experiencia, al ver la cara de felicidad que ponían al escuchar nuestras canciones” (Iraia)



KORRIKA

1980tik, bi urtean behin, euskal lurralde osoko pertsonak batzen ditu Korrikak hainbat egunez. Lasterketa bat da, eta bertan elkartzen diren lagunek barruan mezu bat daraman lekuko bat pasatzen diote elkarri; edukia azkeneko ospakizuneko ekitaldian irakurtzen da. Euskararen aldekoa da Korrika, AEK-k antolatzen du, milaka lagunek parte hartzen dute edizio bakoitzean; eta, urte hauetan, ikerketarako gaia izateaz gain, Euskal Herrikan kanpo ere eraman dute, beste zenbait arrazoiren artean, kohesio sozialerako duen ahalmenarengatik.

Hainbat sentsibiltatetako eta jatorritako pertsonak elkartzen dituen adierazpen handi bat da Korrika. Dibertsitatea, txikitasunaren handitasunak sortzen duen errespetua eta normaltasunez hitz egin nahi duen eta behar duen herri bat biltzen du adierazpen horrek. Horrez gain, gazte eta helduei ilusioa eta alaitasuna ekartzen die Korrikak, eta, hori guztia dela eta, Antsoaingo Udalak geure herriatik pasako den kilometro batean parte hartuko du; eta, jakina, zati horretan korri egitera edota ikustera gonbidatuta zaudete denak.

Martxoaren 30etik apirilaren 9a bitarte izanen da aurtengo Korrika, Otxandio eta Iruñea artean; eta Antsoaindik 9an, 09:35 aldera pasako da. Parte hartzera animatu nahi zaitugu, edo ezagutzera, orain arte aukerarik izan ez baduzu. Inguruko beste toki batzuetara joanen da gero, eta Iruñera 10:15 aldera iritsi ondoren, bukaera han ospatuko dugu denok elkarrekin, eta zu ere geure artean izatea nahi genuke. Animatu eta etorri!



KORRIKA

Desde 1980, cada dos años la Korrika une a personas de todo el territorio del euskera durante varios días. Lo hace mediante una carrera en la que sus participantes se pasan un testigo con un mensaje en su interior cuyo contenido se desvela en el acto de la celebración final. Apoya al euskera, lo organiza AEK, participan miles y miles de personas en cada edición; y durante todos estos años, también ha sido objeto de estudio y “exportado” fuera de Euskal Herria, entre otras razones, por su capacidad de cohesión social.

Une a personas de diferentes sensibilidades y procedencias, y se trata de una gran expresión de diversidad, de la grandeza de lo pequeño así como de un pueblo que quiere y debe hablar con normalidad. Todo ello, unido al hecho de que es ilusión y alegría para jóvenes y mayores, hace que el Ayuntamiento de Ansoáin participe en uno de los kilómetros que pasará por nuestro municipio, y, por supuesto, quedáis todos y todas invitadas a correr en ese tramo o a venir a verlo.

Transcurrirá del 30 de marzo al 9 de abril, entre Otxandio y Pamplona, pasando por Ansoáin el día 9 hacia las 09:35 h. y nos gustaría animarte a participar o a que lo conozcas si todavía no has tenido la ocasión. Después, tras continuar por otros puntos de la zona, llegará a Pamplona en torno a las 10:15 h. donde todos y todas juntas celebraremos su llegada, y nos gustaría que tú también estuvieras. ¡Ánimate y ven!



APIRILAREN 7AN KORRIKA TXIKIA

Apirilaren 7an, ostirala, Goizeko 11:45ean Ezkaba Ikastetxe Pubikloan Korrika Txikia ospatuko dugu. Hurrengo igandean Korrika handian parte hartu baino lehen, eta motoreak berotzeko gisan, Antsoainen barna prestatutako ibilbidea beteko dugu. Eskolatik abiatu eta eskolan amaituko den bidea talde guztien artean banatuko dugu. Handienak hasiko dira eta aurrera joan ahala txikiagoek lekukoa hartuko dute. Modu horretan, korrikalarien taldea gero eta handiagoa izango da bukaeran eskolako ikasle guztiak korrika egon arte. Bukaeran, seigarren mailako ikasleek bertso batzuk botako dituzte eta jai txiki bat ospatuko dugu.

7 DE ABRIL KORRIKA TXIKI

El viernes 7 de abril a las 11:45, celebraremos en el Colegio Público Ezkaba la Korrika Txiki. Antes de participar en la Korrika del siguiente domingo, a modo de calentamiento de motores, completaremos un recorrido que hemos preparado por todo Ansoáin. Este recorrido que empieza y termina en la escuela lo repartiremos en tramos entre todos los grupos del centro. Empezarán los/las mayores y conforme vayan avanzando los/as más pequeños/as irán cogiendo el testigo. De esta forma, el grupo se irá haciendo más grande hasta terminar toda la escuela corriendo. Al terminar, los/as alumnos/as de sexto cantarán unos bertsos y celebraremos una pequeña fiesta.

21 TOKIKO AGENDA/ BERDINTASUN ZERBITZUA

EZKABAKO ESKUALDE PARKEA, GERO ETA HURBILAGO

Urteetan Ezkaba Mendiko Eskualde Parkea sortzeko Proiektuari itxura emateko hainbat saiakeraren ondotik, azkenean aurrerapauso sendoak eman dira. Horrela, aurten, Nafarroako Gobernuak bide emanen dio Iruñerriko Mankomunitateak aurkeztutako proiektuari, inguru hori Parke izendatzeko.

“Ezkaba Eskualde Parkea” izanen da izena, mendiaren jatorrizko izenari men eginez, eta horrela ere erabaki delako, eragileen eskariak aintzat hartuta. Hemendik aurrera, beraz, izen hori agertuko da parkeari dagozkion kartel, seinale eta informazio guztietan.

Prozesuaren emaitza arrakastatsua izan da, ados jarri baitira Ezkaba inguruko Udalak eta Kontzejuak. Esan behar da, beste bi mendi ere sartu direla ekimenean, hots, Oihana eta Ezkaba Txiki, geologiari begira mendi bereko atalak baitira.

Halaber, gure mendiarekin lotura duten elkarteek parte hartu dute, bai eta mendian egin daitezkeen jarduera guztiekin zerikusia duten elkarteek ere. Hona hemen: Anaitasuna, SOS Ezkaba, BTT, Parapentea, ehiza, Mendi Federakundea...

Hemendik gutxira, herritarrek parte hartzeko prozesu ireki bat hasiko da, proiektuari proposamenak egiteko. Tokiko Agenda 21en eta Berdintasun Zerbitzuan ari garenok Antsoaingo gizon-emakume guztiak animatzen ditugu parte hartzera, eta gure burua eskaintzen dugu, proposamena bidaltzeko eta zuen ekarpenak jasotzeko. Honatx helbidea: agendalocal21@ansoain.es.



AGENDA LOCAL 21 / SERVICIO DE IGUALDAD

EL PARQUE COMARCAL EZKABA, CADA VEZ MÁS CERCA

Después de muchos años y distintos intentos de dar forma al Proyecto de un Parque Comarcal en el Monte Ezkaba, por fin podemos empezar a hablar de una realidad. Durante este año, el Gobierno de Navarra tramitará el Proyecto presentado por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona para la declaración de este Parque.

Y decimos “Parque Comarcal Ezkaba”, porque es el nombre que de forma participada y recogiendo la denominación original del monte, se ha decidido para este espacio y que figurará a partir de ahora en la cartelería, señalética o información al respecto.

El gran éxito de este proceso ha sido poner de acuerdo a todos los Ayuntamientos y Concejos del ámbito de Ezkaba y por ende, de los montes Miravalles y “Ezkaba-txiki”, que también se han incluido dentro del proyecto por ser geológicamente parte del mismo monte.

También han participado asociaciones relacionadas con nuestro monte y con todas las actividades que potencialmente se pueden desarrollar en él: Anaitasuna, SOS Ezkaba, BTT, Parapente, caza, Federación de Montaña...

Pronto comenzará un proceso abierto de participación ciudadana para hacer propuestas al proyecto. Desde la Agenda Local 21 y el Servicio de Igualdad animamos a las mujeres y a los hombres de Ansoain a participar, y nos ofrecemos para enviaros la propuesta y recoger vuestras aportaciones en agendalocal21@ansoain.es.

AL21

APIRILAK 8: AUZOLANA GIZARTE ETXE KOMUNITARIO BERRIAN

Gizarte Etxe Komunitario berria (antzinako Osasun Etxea) hemendik gutxira ireki baino lehen, auzolana egingen da heldu den apirilaren 8an, 10:00etatik 14:00etara, tokia garbitu, margotu eta txukuntzeko. Interesa duen orok telefonoz eman beharko du izena 012 telefonoan, apirilaren 5a baino lehen. Datu pertsonalak eman beharko ditu, bere segurtasuna istripu-aseguru baten bitartez bermatzeko. Udalak lan-materialak eramanen ditu.



8 DE ABRIL: JORNADA DE AUZOLAN (TRABAJO VECINAL) EN EL NUEVO ESPACIO SOCIAL KOMUNITARIO

Como paso previo ante la inminente apertura del nuevo Centro Social Comunitario (antiguo Centro de Salud), el próximo 8 de abril, entre las 10 y 14 horas, se celebrará una jornada de trabajo vecinal para limpiar, pintar y adecuar el local. Toda persona que esté interesada podrá apuntarse en el teléfono 012 antes del 5 de abril. Deberá dar sus datos personales para garantizar su seguridad por medio de un seguro de accidentes. Los materiales de trabajo los aportará el ayuntamiento.

SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:



RED
DE TEATROS
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

PROGRAMA ARTE Y CULTURA 2017
2017ko ARTE ETA KULTURA PROGRAMAZIOA

SÁBADO LARUNBATA

1

90 min.

Teatro Ansoáin - 19:00 h.

Antsoaingo Antzokia - 19:00etan

ESCUELA DE MÚSICA DE ANSOÁIN ESCUELA DE MÚSICA DE TARRAGONA / ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLA - TARRAGONAKO MUSIKA ESKOLA

ANSOAIN - TARRAGONA



Las agrupaciones que os presentamos están formadas por jóvenes de entre 12 y 16 años. La mayoría son alumnos que siguen sus estudios de música fuera del Grado Profesional y algunos de ellos se preparan para acceder a esta línea el próximo año. **Orquesta de pianos:** agrupación de jóvenes pianistas que presentan un repertorio ecléctico y variado, con composiciones y arreglos propios y muchas veces provenientes de la improvisación. **Conjunto Instrumental Juvenil:** interpretan piezas adaptadas a la variedad de instrumentos que lo forman y que abarquen estilos musicales

que gusten a los jóvenes.

Taldeak 12 eta 16 urte arteko gazteez osatuta daude. Gehienak gradu profesionalek kanpo ari dira musika ikasten. Batzuk lerro horretan sartuko dira heldu den urtean. **Piano orkestra:** piano-jotzaileen talde honek errepertorio eklektiko eta askotarikoa emanen du. Pieza batzuk haiek berek konposatuak eta moldatuak dira, askotan inprobisaziotik datozenak. **Gazteen Instrumentu Taldea;** zer musika-tresna jotzen dituzten, instrumentu horietara egokitutako piezak jotzen dituzte, gazteek gustukoak dituzten musika-estiloak.

INTERCAMBIO
TRUHEA

Precio Prezioa:
2,00 €

TOOS LOS
PUBLICOS

JENDE
GUZTIARENZAT

8

SÁBADO LARUNBATA

ANTSOAINEN KANTUZ

Plaza Lapurbide - 12:00 h.

Lapurbide plazatik - 12:00etan



Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

FAMILIAR

FAMILIARENZAT

PURO RELAJO

80 min.

Teatro Ansoáin
18:30 primera sesión
20:30 segunda sesión

Puro Relajo es un grupo navarro de 5 componentes (Txuma Gallués al acordeón y voz, Jorge García a la guitarra y voz, David García al bajo y voz y Eneko Irigoyen y losu Burguete

a las trompetas) que interpreta música mejicana principalmente y clásicos en euskera. Durante el concierto, de unos 80 minutos de duración, el grupo repasará sus temas, contará con colaboraciones al piano, proyectará videoclips e interactuará con el público, haciendo pasar una velada inolvidable.

Puro Relajo talde nafarra da, 5 kidez osatua (Txuma Gallués akordeoia eta ahotsa da; Jorge García, guitarra eta ahotsa; David García, baxua eta ahotsa, eta Eneko Irigoyen eta losu Burguete, tronpetajotzaileak). Musika mexikarra jotzen dute batez ere, bai eta euskarazko klasikoak ere. Kontzertuak 80 minutu inguru iraunen du, eta beren kantuak emateaz gain, piano kolaborazioak eta bideoklipak ere izanen dira, eta ikusleekin elkarreaginean arituko dira. Hitz batez, kontzertu zoragarria.

Antsoaingo Antzokia
18.30 1. emanaldia
20.30 2. emanaldia

JUVENIL-ADULTO
GAZTE ETA
HELDUENTZAT

CONCIERTO
KONTZERTUA

Precio Prezioa:
6,00 €

"UN CUENTO DE CABALLEROS"

55 min.

Teatro Ansoáin - 18:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 18:00etan

Cuando Ana Montaña, se prepara para ir al campamento medieval, que ha organizado el colegio, no sabe lo que se le viene encima. Ella piensa que los caballeros son unos chicos valientes que salvan princesas y acaban con dragones y que los reyes aparecen siempre al final para salvar a todo el mundo. Cuando todo se pone patas arriba, Ana decide intentar cambiar las cosas. Un cuento musical que pretende divertir y combatir los estereotipos.

Ana Montaña Erdi Aroko kanpamentura joateko prestatzen denean, ez daki zer datorkion buru gainera. Kanpamentua ikastetxeak antolatuta du, eta Anak uste du zaldunak mutil ausartak direla, printzesak salbatu eta herensugeak hiltzen dituztela, eta erregeak beti bukaeran agertzen direla mundu guztia salbatzeko. Dena hazkaz gora dagoenean, Ana gauzak aldatzen saiatuko da. Ipuin musikal honek estereotipoen kontra jo nahi du, eta ikusleengan dibertsioa eragin.

A PARTIR DE 3
AÑOS
3 URTETIH
GORAHOENTZAT

CUENTO MUSICAL
IPUIN MUSIKALA

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 4,50 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 6,00 €

VENTA DE ENTRADAS ■ SARREREN SALMENTA

TAQUILLA DEL TEATRO. Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo

ANTZOKIKO LEIHATILAN. Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012). Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo
012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012). Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita

INTERNET - www.teatroansoain.es VENTA DE ENTRADAS. Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala

INTERNET - www.teatroansoain.es SARREREN SALMENTA. Internet bidez egindako erosketaren egiaztatzea ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez

21

SON CUBANO
SON KUBATARRAVenta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 3,00 €Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan: 4,50 €

VIERNES OSTIRALA

SONEANDO CON PATXI Y JUAN
SON DOINUETAN PATXI eta JUANEKIN

70 min.

Teatro Ansoáin - 21:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 21:00etan

El dúo Juan y Patxi nos presentan en este concierto de estilo Son cubano que combina la estructura y características de la música española con elementos e instrumentos musicales afro-cubanos; es uno de los más influyentes géneros de la música latinoamericana; sus derivados y fusiones, especialmente la Salsa, se han difundido ampliamente a través de todo el mundo. Repertorio que podremos escuchar: *Cómo fue, En mi viejo San Juan, Chan Chan, El cuarto de Tula, Son de la loma, El baile del Juanito, Idilio, Son al son, Lágrimas negras, La negra Tomasa, Ay sabroso, Moliendo café, Comandante Che Guevara, Guantanamera.*

Juan eta Patxi bikoteak Son kubatar estiloa entzuteko parada emanen digute; zehazki, musika espainiarraren egitura eta ezaugarriak elementu eta instrumentu afro-kubatarrekin uztarturik agertuko dira. Musika latinoamerikarraren generorik eragintsuenetako bat da. Hartatik eratorritako musikak eta fusioak (Saltsa, batez ere) ederki zabaltzu dira mundu osoan barrena. Honatx errepertorioa: *Cómo fue, En mi viejo San Juan, Chan Chan, El cuarto de Tula, Son de la loma, El baile del Juanito, Idilio, Son al son, Lágrimas negras, La negra Tomasa, Ay sabroso, Moliendo café, Comandante Che Guevara, Guantanamera.*

JUVENIL-ADULTO

GAZTE ETA
HELDUENTZAT24
al
30ENTRADA LIBRE
SARRERA DOANSEMANA DE LAS PERSONAS MIGRANTES
Y REFUGIADAS / MIGRANTEEN ETA
ERREFUXIATUEN ASTEAEspacio Cultural. Ctra. Ansoáin 4Bis
"Kulturgunea". Antsoain errepidea 4Bis

Al no estar cerrado el programa en el momento de la edición de esta agenda cultural, se anunciará a través de cartelería, en la Web municipal y sus redes sociales.

Kultur agenda hau argitaratzerakoan ez da programa itxi; beraz, behin betiko programa kartelen bidez, udalaren webean eta sare sozialetan iragarriko da.

26

CUENTA CUENTOS
(en eusquera)
IPUIN HONTALARIA
(euskaraz)

MIÉRCOLES ASTEAZHENA

BI GURPILEKO AMETSA

LUR USABIAGA

17:30 De 3 a 5 años

18:15 De 6 a 12 años

EXCLUSIVAMENTE PARA NIÑOS/AS

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat

18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

HAURRENTZAT BAIZIK EZ

Biblioteca
LiburutegiaENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

27

CUENTA CUENTOS
IPUIN
HONTALARIA

JUEVES OSTEGUNA



KAMISHIBAI

EDUARDO CUESTA

17:00 Euskera

17:30 Castellano

DE 3 A 8 AÑOS

17.00ean Euskaraz

17.30ean Gaztelaniaz

3 ETA 8 URTE

BITARTEKOENTZAT

Biblioteca
LiburutegiaENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

27

JUEVES OSTEGUNA

NACIDO EN SIRIA

Teatro Ansoáin - 19:30 h.

Antsoaingoa Antzokia - 19:30ean



Desde que comenzara la guerra civil en Siria unos cuatro millones de habitantes han tenido que abandonar el país huyendo de la violencia. Más de la mitad niños y niñas. **Nacido en Siria** narra su calvario: los abusos de las mafias, las inclemencias del mar, la incertidumbre sobre un futuro al que la gran mayoría se enfrenta apenas con lo puesto: Descubriremos que llegar a su destino es solo el comienzo de una nueva odisea: la de la integración en una tierra nueva y, en muchos casos, hostil. El mayor éxodo desde la Segunda Guerra Mundial visto a un metro y medio de altura a través de siete historias de guerra, sufrimiento y desesperación... pero también de superación, inocencia, valor y esperanza, que nos permitirán entender qué significa haber nacido en Siria.

Siriako gerra zibila hasi zenetik, lau milioi biztanlek alde egin behar izan dute sorterritik indarkeriatik ihesi. Erdiak baino gehiago haurrak. **Nacido en Siria** filmak jende horren oinazealdia kontatzen du, hau da, mafien gaiztakeria, itsasoaren gorabeherak, etorkizunaren gaineko kezka, gainean daramatena baitute gehienek ondasun bakar. Ohartuko gara helmugara iristea beste odisea latz baten hasiera baizik ez dela: herrialde berri batean integratu beharra; aunitzetan, etsai-giro gogorrean. Horra Bigarren Mundu Gerratik hona izaniko exodorik handiena metro eta erdiko altueran ikusia, sei istorioren bidez: gerra, sufrimendua, etsipena... baina era berean, ahalegina, xalotasuna, adorea eta itxaropena. Horrek guztiak aukera emanen digu Sirian jaiotzeak zer esan nahi duen ulertzeko.

PELÍCULA
DOCUMENTAL
FILM
DOCUMENTAL

ENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

28

VIERNES OSTIRALA

MITAD Y MITAD

55 min.

Teatro Ansoáin - 21:00 h.

Antsoaingoa Antzokia - 21:00etan

TXALO produkzioak (GUIPUZCOA / GIPUZKOA)



¡¡NO PARARÁS DE REÍR!! MITAD Y MITAD de Jordi Sanchez ("Krampack") y Pep Antón Gómez ("Sexos") es una comedia negra que transcurre durante una noche en la casa de una mujer moribunda. Uno de sus hijos, el que vive con ella y se ha encargado de cuidarla durante su larga enfermedad, llama a su hermano mayor al ver que la muerte de su madre es inminente. Durante el transcurso de esa noche ambos hermanos desearan que su madre muera ya y discutirán por el reparto de la herencia.

BARREZ LEHERTZEKO MODUKOA!! MITAD Y MITAD komedia beltza da, Jordi Sanchezek ("Krampack") eta Pep Antón Gómezek ("Sexos") egina. Istorioa

hiztorian dagoen emakume baten etxean gertatzen da gau batez. Luze jo du gaixotasunak, eta semeetako batek zaindu du, amarekin bizi denak, hain zuzen. Orain, anaia nagusiari hots egin dio, ama berehalakoan hilko dela ikusita. Gau horretan, bi anaiek nahiago dute ama behingoan hiltzea, eta herentziaren banaketa izanen dute eztabaidagai.

JUVENIL — ADULTO
GAZTE ETA
HELDUENTZAT

Venta Anticipada
Aldez Aurreko
Salmenta: 8,00 €

Venta en Taquilla
Salmenta
Leihatilan:
10,00 €

AVANCE DE LA PRÓXIMA AGENDA

Algunos espectáculos pueden ser anunciados en la página web del teatro antes de su publicación en la agenda mensual. Puedes informarte de manera permanente y comprar tu entrada con antelación a través de www.teatroansoain.es.

HURRENGO AGENDAREN AURRERAPENA

Ikuskizun batzuk antzokiaren webean iragarrita egon daitezke hileko agendan argitaratu aurretik. Webean informazio eguneratua duzu eskura, eta sarrera lehenago erosteko parada ere baduzu: www.teatroansoain.es.